

Hernaniko Osoko Bilkurak 2022ko maiatzaren 31an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

2021 URTEKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA ONARTZEA.

Toki erakundeek, kontabilitate-ekitaldia amaitutakoan Kontu Orokorra egin behar dute; bertan ekonomiaren, finantzen, ondarearen eta aurrekontuaren arloetan egindako kontabilitate kontuen berri ematen dute.

Apirilaren 7ko Kontuetarako Batzorde Bereziak Kontu Orokorraren aldeko txostena eman zuen. Espedientea jende aurrean egon da (apirilaren 12ko GAOn argitaratuta, 70 zbk.), eta erreklamazioak egiteko epean ez da eragozpen edo oharrik izan.

Honenbestez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62. eta 63. artikulua eta abenduaren 15eko Gipuzkoako Toki erakundeen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen 86/2015 foru dekretua kontuan hartuta,

Kontuan hartu da Antolaketa Batzordeak **(Ogasun eta Ondare - Kontuetarako Batzorde Berezi lanetan)** 2022ko maiatzaren 19an egindako bilkuran GEHIENGOZ emandako irizpena

Bozketaren emaitzak

ALDEKO BOZKAK Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.

(16) Koro Etxeberria Tolosa.
Estibaliz Aldeiturriaga Amuriza.
Oier Agirresarobe Lizaso.
Patxi Ibarburen Echeverria.
Martin Aldaya Olasagasti.
Isabel Sanchez Perez.
Estibaliz Sara Agirre Agirre.
Itsaso Lekuona Legorburu.
Alex Erdozia Igoa.
Ane Ibarburu Lizeaga.
Andoni Amonarraiz Gómez.
Felipe Etxeberria Agirretxe.
Blanca Alberro Aranzasti.
Mikel Gurutzeaga Zubillaga
Jose Antonio Cuesta Solé



ABSTENTZIOAK (4) Jaione Aristregui Cao.
Lurdes López Gorrotxategi.
Ricardo Crespo Rubio.
Jesus Mari Lopez Sanchez

Horiek horrela hau erabaki da **GEHIENGOZ**

1.- Hernaniko Udala eta menpeko erakundeak (Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak eta Ereñotzuko Toki Entitate Txikia) biltzen dituen 2021 urteko Kontu Orokorra onartzea.

Kontu Orokorren espedienteak honako agiri hauek jasotzen ditu:

1. Egoeraren balantzea.
2. Ekonomia –eta ondare- arloko emaitzaren kontua.
3. Ondare garbiaren aldaketen egoera orria.
4. Diru fluxuen egoera orria eta Diruzaintza Kontua.
5. Zorraren egoera.
6. Aurrekontu eta kontabilitate emaitza berdinkatzeko egoera orria.
7. Egiartzaketa balantzea.
8. Kreditu aldaketen egoera orria.
9. Aurrekontuz kanpoko zordun eta hartzekodunak.
10. Ziurtagiria: konpromiso-kredituak eta abalak.
11. Memoria Txostena: Hernaniko Udala, Ereñotzu toki entitate txikia eta Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak.
12. Likidazio espedienteak: Hernaniko Udala eta menpeko erakundeak (Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak, eta Ereñotzu Toki Entitate Txikia).

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsioak aurkezteari ezertan galarazi gabe.

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa
Bitarteko idazkaria

Hernani, 2022ko ekainaren 07an

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU0b73276a-2c0a-4f4d-bfd9-92f8a7c72a6b**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>**